

dFERIA09, Donostiako Arte Eszenikoen Feria Internazionala, ikusleen eta programatzaileen txalo artean amaitu da

19 ikuskizunetako 20 emanaldi programatu dira hiriko eszenatoki ezberdinetan. Hamabosgarren edizioaren ondoren, dFERIA, Donostiako Arte Eszenikoen Feria, erreferentzia gisa finkatzen ari da Espainia mailan, bertan parte hartu duten ikusle eta profesionalen kopuruek ziurtatzen duten bezala. Hala erakusten du aurtengo profesional akreditatuen kopuruak, iaz baino 10 gehiago (2009an 282 eta 2008an 272). Zifra hori dFERIAko hamabost edizioetan lortu den kopuru handiena da. Kale antzerkia ez programatu izanak eta Kurasaala erabili ez izana berebiziko eragina izan du amaierako datuetan: bai ikusleetan eta baita programatutako ikuskizunen kopuruan ere. Jarduera paraleloei eman zaien bultzadak erantzun zuzena izan du publikoaren eta profesionalen parte-hartzean; izan ere % 35 egin du gora (iazko 2.599 pertsonatik aurtengo 4.018 pertsonara).

5.426 lagunek ikusi dute programatutako ikuskizunetako bat. Horiei, gainera, beste jarduera batzuetako 4.018 parte-hartzaileak gehitu behar zaizkie. Guztira, beraz, 9.444 parte-hartzaile egon dira 2009an.

PROGRAMAZIOA

Guztira 19 ikuskizun programatu dira 20 emanaldi ezberdinetan.

Berritasuna: Ikuskizunen %73,68 estreinaldiak izan dira, era batera edo bestera: 3 absolutu, 5 Europa mailakoak, 3 Espainia mailakoak eta 3 Euskadi mailakoak. Guztira 14 estreinaldi. Horrek konpainiek dFERIAan aldeko apustua egin dutela esan nahi du, feria euren ikuskizunen erakusleiho gisa baliatuz.

Internazionaltasuna: dFERIAk izaera internazionala du. Konpainien % 44,44a atzeritik etorri da: Uruguay, Costa Rica, El Salvador, Brasil, Perú, Argentina, Honduras eta Polonia.

ITINER ARTE: *latinoamerikar konpainiak biran.* dFERIA barruan oinarrizko proiektu bezala finkatu da berezko izaerarekin. Datozen egunetan, Basauri, Amorebieta, Elorrio, Durango, Eibar eta Santanderretik jarraituko du bere ibilbidea. ItinerArteK, alde batetik, herrialde latinoamerikarretako ikuskizunentzako plaza da Espainian,

eta bestetik, hango eta hemengo profesionalen arteko erlazioak sortu eta sendotzea du helburu bezala, topaketak eta lankidetzak sustatuz.

Euskal Feria: Euskadiko dantza eta antzerki konpainiak programazioaren %38,89a dira, horrek dFERIA euskal sorkuntzaren alde egiten duen apostua islatzen du. Gainontzeko %16,77a Espainiako beste autonomia erkidegoetatik datoz. dFERIA erakusleioa da eta tokiko konpainiek horretaz baliatu daitezkeen nahi du antolakuntzak.

Dantza eta antzerkia: Dantza eta antzerkiaren arteko presentzia % 42,11 eta %57,89koa izan da hurrenez hurren. Bi disziplinen arteko oreka zaintzeak, arte eszenikoen ekitaldi izateko dagoen borondatea erakusten du.

Polonia eta 2016: dFERIAk bere apurra jarri du 2016ko Kultura Hiriburutzarako bidean. Horren harira, Gdansk eta Lublin hiriekin lankidetzak bi konpainia poloniarren presentziarekin gauzatu da. Lankidetzak hori beste ekimen batzuetara ere zabalduko da Polonian, kudeatzaile eta sortzaile euskaldun eta poloniarren artean.

JARDUERA PARALELOAK

Aurten ere, jarduera paraleloek dFERIA erakargarriago egiten lagundu dute, aniztasun handiko publikoa erakarri dutelarik. Aurtengo parte-hartzea **4.018** pertsonakoa izan da, beraz, iaz baino **%35** gehiago.

ITINER ARTE: ItinerArteren oinarritzko helburua arte eszenikoekin eta nazioarteko lankidetzarekin zerikusia duen guztian sentsibilizatzea da. Horretan funtsezko garrantzia dute jarduera paraleloek. Horregatik saiakera berezia egin da diseinuan eta garapenean:

- Programatzaile eta banatzaileentzako Negozio Foroa: dFERIAN lehenengo aldiz parte hartu duten 4 jaialdiren errealitatea ezagutzera eman da: Buenos Aires, Montevideo, Portugal, Córdoba eta Sare Espainiarreko puntako proiektuak.
- *Los proyectos en red de cooperación Española* hitzaldia: El Salvador-eko Espainiako Zentru Kultureko zuzendaria den Juan Sánchez-ek, lankidetzak espainiarra nola lantzen duten azaldu du.
- *Creación y cooperación* hitzaldia: Mexikoko Zentru Kultural espainiarreko zuzendaria den Jesús Oyamburuk Latinoamerikan dauden artisten egoitza ereduak azaldu ditu.

- **Gabriel Calderón eta Ramiro Perdomorekin solasean** (Cía. Complot, Uruguay)
- **Mirella Carbonekin solasean** (Perú)
- **Felipe Acostarekin solasean** (Grupo Teatral Bambú, Honduras): Konpainiak Donostian egongo zela hitz eman zuen nahiz eta Hondurasen Estatu Kolpea egon, bere hitza bete zuten.
- **Humberto Canessa, Francisco Centeno eta Mirella Carboneren Master Class-ak**
- **Juan Carlos Santamaria donostiarraren Master Class-a** (2008ko Dantza Sari Nazionala)
- **Gustavo Zajac-en tailer koreografikoa eta hiru erakustaldiak**

Master Class-ak eta tailerra Gipuzkoako Dantza Profesionalen Elkartearekin lankidetzan antolatu dira.

Gainera, beste ekintza hauek egon dira:

Antzerkia Airean lehiaketaren IV.edizioa: Erabateko arrakasta. Aurten iaz baino lan gehiago aurkeztu dira oso kalitate onekoak, hala teknikoki nola artistikoki. Lehiaketa, Casares Irratia eta Casares K.E.aren ekimenez sortua, sendotzen doa.

Gerardo Sanz-en Denboraren agertokian erakusketa: Argazkilaritza eszenikoaren inguruko erakusketa maiatzaren 22tik uztailaren 11ra Okendo K.E.an egon dena (gaur arte 2.800 bisitari izan ditu).

Bisita gidatuak: hiru bisitaldi egin dira; lehenengoa, Gerardo Sanz-en erakustaldira; bigarrena Victoria Eugenia Antzokira eta hirugarrena urteko azken hiruhilekoan irekiko den TOPic-era (Tolosako Txotxongilo Zentro Internazionalera).

Udako Ikastaroak (EHU): Euskal Herriko Unibertsitateak *Vivir para contarlo y contar para vivir. De la narración oral tradicional a la escena contemporánea* izeneko ikastaroa antolatu du Virginia Imaz zuzendua.

- Felipe Acosta (Honduras) eta Gustavo Zajac-ek(Argentina) mahai inguru batean parte hartu zuten.
- Lau ipuin-kontakizun Okendo K.E.an eta Ernest Lluch K.E.-en.

Lan batzarrak: Arte eszenikoen profesionalak goizetan bildu dira:

- SAREA, Red Española de Teatros eta Eskena-ren asanbladak.
- Red Española de Teatros-aren Zuzendaritza taldearen bilera.
- Red Española de Teatros-en Musika eta Antzerkiko batzordeak eta Esquina Norte-ren bilera.

AKREDITATUTAKO PROFESIONALAK

dFERIA09n akreditatu diren profesionalak iaz baino 282 **izan dira**. Iaz baino 10 gehiago. Hori errekorra da dFERIA-n. Iaz programatzileen asistentzia erreperatu egin zen eta aurten mantendu egin da. Ekainaren 30aren eta uztailaren 4a bitartean **106** programatzaile egon dira Donostian. Beraz, erosle potentzialak konpainien ikuskizunak jarraitzen egon dira. Beraz, orain, programazioetan islatzea espero dugu, euskal sorkuntzari dagokionarena, batez ere.

GARAPEN EKONOMIKOA

Edizio batetik bestera, gutxi gora behera 750 pertsonetan hazi da dFERIAk mugitzen duen presentzia. Horrek hirian diru asko uztea suposatzen du: hoteletan, jatetxetan, erosketetan, alokairuetan... Alegia, aberastasuna sortzen da eta hiria atzerritarren artean ezagun egiten da.